



ERRONKA

3.1.

*** Hitz hauen definizioak azpian dituzu desordenaturik.
Ondo irakurri eta asmatu zeinen definioa den bakoitza. ***

KOMETAK	SATELITEAK	ASTROAK	KONSTELAZIOAK	PLANETAK
EGUZKIA	ASTEROIDEAK	IZARRAK	ESNE-BIDEA	GALAXIAK

	Unibertsoan dauden elementuak edo gorputzak dira.
	Izar bat da, guregandik gertuen dagoena, eta haren beroari eta argiari esker bizi gara.
	Galaxia bat da. Bertan daude Lurra, gure planeta, Eguzkia, Ilargia eta beste astro batzuk.
	Izar multzo erraldoiak dira, milaka eta milaka izar biltzen dituztenak.
	Argi propioa dute eta energia handia sortzen dute; argia eta beroa ematen dute.

	Gorputz izoztu txikiak dira. Eguzkitik gertu pasatzean berotu egiten dira eta gasak askatzen hasten dira. Batuetan isats bat ikusten zaie.
	Ez dute berezko argirik, eta izar baten inguruan biraka dabilta.
	Planeta bat baino txikiagoak dira. Harrizkoak edo metalezkoak izan daitezke eta izarren inguruan biraka dabilta.
	Planeten inguruan biraka dabiltzan astroak dira.
	Izar multzoak dira. Itxuraz elkarren ondoan daude, eta, marra batez lotuz gero, irudi bat osatzen dute.

